

# LEHENENGO HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA

**Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B1 maila**

## AHOZKO AZTERKETA

- Saio bakoitzean bi azterketarik hartuko duzue parte.
- Probak aurkezpena eta bi ariketa izango ditu. Atal guztiak egin behar dira.
- Aldez aurretik ez da ezer prestatu behar.
- Epaimahaiak galderak egin diezazkizueke.
- Egin beharreko probaren alderdiren bat ulertzen ez baduzue, azterketa hasi baino lehen, epaimahaiari eskatu beharko diozue zalantzak argitzeko.
- Saioa grabatu egingo da.

MINTZAMEN-PROBA Probaren ezaugarriak	Aurreikusitako denbora	Puntuazioa gehienez	Puntuazioa gutxienez
<p><b>Aurkezpena</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>■ Ez da ebaluatuko.</li> <li>■ Labur-labur bakoitzak bere burua aurkeztuko du. (Nor/ NANA/nongoa/lana).</li> </ul> <p><b>1. ariketa:</b> Bakarka.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>■ Gai baten inguruko bi fitxa banatuko dira.</li> <li>■ Argazki batean ikusitakoaren gainean iritzia eman behar diozu azterketakideari.</li> <li>■ Denbora: 1 min. fitxa begiratzeko, eta 3 min. iritzia emateko.</li> <li>■ Batak bukatzen duenean, besteak ekingo dio.</li> <li>■ 15 puntu.</li> </ul> <p><b>2. ariketa:</b> Azterketarien arteko elkarrizketa.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>■ Gai baten inguruko fitxa banatuko zaizue.</li> <li>■ Adostasun batera iristeko egoera bat aurkeztuko zaizue. Helburua negoziatzea eta informazioa trukatzea da.</li> <li>■ Denbora: 1 min. fitxa begiratzeko, eta 6 min. elkarrizketan aritzeko.</li> <li>■ 15 puntu.</li> </ul>	15-20 min.	30	15

## 1. HE

(aztertzailea)

## MINTZAMENA

### (A fitxa)

- **1. ariketa:** Eman zure iritzia gai honi buruz.  
Komentatu argazkia eta esaldiak.  
1 min. duzu fitxa begiratzeko , eta 3 min. iritzia emateko.

### KIROLA, BARRUAN ALA KANPOAN?

Gimnasia eguraldi onarekin zein txarrarekin joan zaitezke, eta edozein kirol praktika dezakezu bertan: korrika, bizikleta, muskulazioa...

Kirola gimnasioan edo kiroldegian egiteko ordaindu egin behar da, eta, orduaren arabera, jendez gainezka egoten da.



### (B fitxa)

- **1. ariketa:** Eman zure iritzia gai honi buruz.  
Komentatu argazkia eta esaldiak.  
1 min. duzu fitxa begiratzeko , eta 3 min. iritzia emateko.

Kanpoan kirola egitea merkea da, ibilbide desberdinak egin ditzakezu korrika edo txirrinduz eta haize fresko sana hartzeko aukera duzu.

Eguraldi txarra egiten duenean, ordea, ez da batere erosoa. Gainera, zenbait kirol (aerobic-a, judoa, badminton-a...) ezin dira kanpoan egin.



- **1. ariketa:** Eman zure iritzia gai honi buruz.  
Komentatu argazkia eta esaldiak.

## **KIROLA , BARRUAN ALA KANPOAN?**

Gimnasia eguraldi onarekin zein txarrarekin joan zaitezke, eta edozein kirol praktika dezakezu bertan: korrika, bizikleta, muskulazioa...

Kirola gimnasioan edo kiroldegian egiteko ordaindu egin behar da, eta, orduaren arabera, jendez gainezka egoten da.



- **1. ariketa:** Eman zure iritzia gai honi buruz.  
Komentatu argazkia eta esaldiak.

## **KIROLA, BARRUAN ALA KANPOAN?**

Kanpoan kirola egitea merkea da, ibilbide desberdinak egin ditzakezu korrika edo txirrinduz eta haize fresko sanoa hartzeko aukera duzu.

Eguraldi txarra egiten duenean, ordea, ez da batere eroso. Gainera, zenbait kirol (aerobic-a, judoa, badminton-a...) ezin dira kanpoan egin.



**(aztertzailea)**

- **2. ariketa:** Gaiaren inguruko bat-bateko elkarrizketa egingo dugu orain.
  - Kontuan hartuko dugu zenbat/nola parte hartzen duzuen.Materiala eman (bakoitzari bere fitxa).  
Zer egin behar duten azaldu:

**Egitekoa:**

**AUTORIK GABE, NOLA MOLDATU?**

Pentsa dezagun bikotea zaretela eta eskola adineko 2 seme-alaba dituzuela. Biotako batek hirian bertan lan egiten du, eta besteak hiritik kanpo. Bi auto dituzue eta bat saltzea erabaki duzue gastuak murriztu beharra duzuelako.

Argazkietan dauden aukerak komentatu eta esan bakoitzaren alde onak eta txarrak zeintzuk diren. Ondoren, adostu bion artean nola moldatuko zareten aurrerantzean lanerako, haurrak eskolara edo kiroletara eramateko, hirian mugitzeko, erosketak egiteko...

- 1 min. duzue fitxa begiratzeko, eta 6 min. inguru elkarren artean elkarrizketa egiteko.

Jardunaren bitartean:

- Hitz egiten utzi eta denbora kontrolatu.
- Beharrezkoa bada, esku hartu, moztu, txanda aldatu...  
(komunikazioa eteten bada, desoreka badago, ekoizpena laburregia bada)
- Horretarako, hemen dituzu galdera osagarriak:

---

---

**Galdera osagarriak**

- Garraio publikoak nola funtzionatzen du zuek bizi zareten lekuetan?
  - Etxe askotan 2 edo 3 auto daude gaur. Lehen gutxiagorekin moldatzen ziren. Nola egiten zuten?
  - Zein dela uste duzu hirian mugitzeko garraiobiderik eraginkorrena?
- 
-

# AUTORIK GABE, NOLA MOLDATU?

